



Urriak 17, Pobreziaren Aurkako Nazioarteko Eguna

Caritasek borondate politikoa eskatzen du, Espainian zein EB osoan pobrezia desagerrarazteko

Espainiako Caritasek Caritas Europak eta Pobreziaren Aurkako Europar Sareak (EAPN) zabalduko manifestuak babesten ditu.

Duela 25 urtetatik, mundu osoan ospatzen da urriaren 17an Pobreziaren Aurkako Eguna, pobrezia behin betiko desagerrarazteko lehentasuna –enagarrenez alboratua izan dena– agenda publikoan sartzeko deialdi gisa, batez ere gizarte-bazterketa handieneko egoeretan dauden pertsonen kasuan.

Caritasentzat eskakizun iraunkorra da; alde batetik, gure herrialdean zein bertatik kanpo babesten ditugun milioika pertsonen prekaritate-errealitateagatik eskatzen dena, eta bestetik, nazioarteko komunitateak bere gain hartutako konpromisoengatik, hala nola Garapen Iraunkorrerako Helburuak.

Presa are handiagoa da, azken hamarkadan Espainiako gizarte-bazterketaren mailak izan duen goranzko eboluzioa ikusita, Foessa Fundazioak pasa den irailaren 26an argitaratutako [“Análisis y Perspectivas 2018”](#) txostenak agerian jarri berri duenez.

Arduradun politikoei hitzetatik ekintzetara pasatzera dei egiteko ordua da, bai eta botere publikoei desabantaila sozialeko egoeran dauden pertsonen eskubideak bermatzeko beharrezkoak diren politikak ausardiaz artikulatu ditzaten eskatzeko ere.

Horixe da Caritas Europak eta Pobreziaren Aurkako Europar Sareak (EAPN) –Espainiako Caritas kide da– dagokien manifestuetan arreta jartzen dioten eskakizuna, gaur oroitzen den eguna dela bide.

Caritas Europaren adierazpena

Pobreziaren Nazioarteko Egunean, Caritas Europak adierazpen bat zabaldu du, 2019ko Europako Parlamentuko hauteskundeetako hautagaiei "beren kanpainetan pobreziaren, desparekotasunen eta gizarte-bazterketaren aurkako borrokari lehentasuna emateko" eskatuz. Adierazten duenez, "etorkizuneko Parlamentuak 2030 Agenda azkar abiarazteko eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) 2030erako betetzeko ahalegin guztiak egin beharko lituzke. Bereziki, 1. GIHa betetzeko neurri egokiak har ditzan eskatzen dugu: Pobrezia desagertzea, hain zuzen. EBk bizilagun guztien gizarte-eskubideak babesterakoan duen balio erantsia erakutsi dezake eta erakutsi behar du".

Caritas Europak ziurtatzen du "haurrak familia pobreetan jaiotzen direnean, probablea dela haiek ere bizi osoa pobrezian igarotzea". Horrez gain, "2008ko finantza- eta ekonomia-krisiaz geroztik, austeritate-politikek presiopean jarri dituzte gizarte-babeseko sistema nazionalak, eta horrek Estatuak pertsonak pobreziatik babesteko duen gaitasuna



are gehiago ahultzen du. Europarrek babes hori merezi dute, desparekotasunak murrizten eta gizarte-kohesioa hobetzen laguntzen baitute”.

Jorge Nuño Mayer espainiarrak, Caritas Europako idazkari orokorrak, berresten duen moduan, “EBk gehiago egin dezake pobrezia aurka. Behartsuentzat enplegua sortu behar da eta familientzako laguntza gehiago eta gizarte-babes hobea behar dira. Eta hiritarrek ikuspegi hori babes dezakete Europako hurrengo hauteskundeetan”.

Caritas Europaren adierazpenaren amaieran, “2030erako Pobrezia Aurkako Nazioarteko Egunkian ospatu beharrik ez izatea bermatzeko nahia” agertu dute, “ordurako Europar pobrezia desagerrarazita egongo delako”.

EAPNren manifestua

Pobrezia Aurkako Europar Sareak (EAPN) gaur kaleratutako [manifestuak](#), alde batetik, Espainiak nazio zein nazioarte mailan pobrezia aurkako borrokan hartu dituen konpromisoak bete ditzala eskatzen du, eta beste alde batetik, pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurkako estrategia nazional bat martxan jar dezala, Eskubide Sozialen Europako Pilarea babesteaz aparte.

EAPNk salatzen du “Europar Batasunak ez duela nahikoa borondate politiko izan bidezkoa den eta biztanle guztientzako aukera berdintasuna duen gizarte bat sustatzeko”. Ildo berean, gogorarazten du “aberastasuna gutxi batzuen eskuetan gero eta pilatuago dagoen bitartean, 118 milioi pertsonen –horietatik 21,6 milioi haurrak– bizitza pobrea dutela eta gizarte-bazterketa bizi dutela. Europako biztanleen % 23,8z ari gara. 2020 Estrategia amaitzeko 15 hilabeteren faltan, EBk ez du bete 20 milioi pertsona baldintza horietatik ateratzeko konpromisoa: hamarkadaren hasierako zifra berdinekin jarraitzen dugu. Espainiaren kasuan, 2020rako hartutako konpromisoa pobrezia- edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonen kopurua 1.400.000 eta 1.500.000 artean murriztea izan zen.

Horrekin batera, ohartarazten du “pobrezia eta gizarte-bazterketa giza eskubideak larriki ez betetzearen adierazpenak direla. Horiekin amaitzeko, beharrezkoak dira borondate politiko eta kohesio sozialaren bidezko eta berdinezaleago bat lortzeko helburua lehenesten duen gizarte-inbertsiorako ikuspegi argia”.

Azkenik, EAPNk eskatzen du “jar dadila martxan pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurkako estrategia nazional bat, bai eta 2017ko azaroan Europako Parlamentuak eta Europako Batzordeak aldarrikatutako Eskubide Sozialen Europako Pilarea ere, Espainiako gobernuak onetsi zuena”.